

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako 140 ikastetxetako 5.133 ikaslek hartuko dute parte 2017ko Eski Kanpainan

NICDO, Caja Navarra Fundazioa, La Caixa Gizartekintza eta Otsagabiako Udala kanpainaren antolatzaileek gaur goizean sinatu dute lankidetzaz hitzarmena Izaban

Osteguna, 2017.eko otsailak 16

Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio (NICDO) enpresak, Caja Navarra Fundazioak, La Caixa Gizartekintzak eta Otsagabiako Udalak gaur goizean sinatu du Iraupen-eskiko XXXIII. Eskola-kanpainarako lankidetzaz hitzarmena; Nafarroako 140 ikastetxetako 5.133 ikaslek hartuko dute parte kanpaina horretan.



Kontseilaria eta erakunde laguntzaileetako ordezkariak, kanpaina babesteagatik jaso duten eguzki-lorea erakusten.

Dagoeneko 2.400 gaztek hartu du parte aurtengo kanpainan; abenduaren 18an hasi zen eta apirilaren 28an amaituko da.

Ikasle guztien artean, izena eman dutenetatik 4.209 ikaslek Erronkariko Balarara joango dira, eta 924 Zaraitzokora. Gainera, 411 irakaslek jarduten du "Aste Zurian" laguntzen.

XXXIII. edizio honetan, NICDO enpresa arduratuko da Erronkariko Haraneko kanpaina aurrera eramateaz; Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoa da NICDO, eta berak kudeatzen du Larra-Belaguako Eski Nordikoko Zentroa. Erronkariko Haranarekin lankidetzan jarduten du enpresa horrek eta, batez ere, Izabako Udalarekin. Zaraitzuko Haraneko kanpainaren antolakuntza, berriz, Otsagabiako Udalak kudeatzen du.

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak (INDJ) eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak elkarrekin egiten dute eskola-jarduera horren aldeko apustua, 60.000 euroekin finantzaturik kanpaina NICDO enpresaren bitartez. Otsagabiako Udalak beste 13.161 euroko ekarpena egin du.

Iraupen-eskiko Eskola-kanpainak baditu funtsezko beste bi laguntzaile ere; haiek gabe ezin izango litzateke proiektu hori aurrera atera: La Caixa Gizartekintza eta Caja Navarra Fundazioa, hain zuzen ere; 550.000 euroko ekarpena egiten dute horiek.

Horri guztiari esker, ikasleek programan parte har dezakete, 140

euroko tarifa ordainduta.

Sinatze-ekitaldian izan dira Ana Herrera Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari eta NICDO enpresa publikoko lehendakaria; NICDOko zuzendari kudeatzaile Javier Lacunza; Ana Diez CaixaBankeko lurralde-zuzendaria; Caja Navarra Fundazioko zuzendari Javier Fernandez; Jose Mari Viscarret Otsagabiako alkateordea, eta Iزابako alkate Jesus Barace.

Kanpaina: helburuak eta ondorioak

Aurtengoa Eski Kanpainaren 33. edizioa da; etenik gabe antolatu da 1985. urteaz geroztik. 378 inskripzio izatetik 5.133 parte-hartzaile izatera pasatu da. Foru Komunitate osoko ikasleak hartzen ditu ekimenak, bost egunez kirola egin, elkarbizitzen ikasi eta Nafarroako Pirinioekiko errespetua barnera dezaten.

Iraupen-eskiko Eskola-kanpainak hainbat helburu uztartzen ditu; hala nola gazteen artean kirol-jarduna sustatzea, bizikidetzeta eta kohesio soziala, ingurumena zaintzearekiko errespetua, gazte eta emakumeentzako enplegua sortuta zona horiek sozioekonomikoki dinamizatzea, eta hizkuntza-aniztasuna sustatzea.

Nabarmentzekoa da, halaber, Pirinioetako haranetan eragin sozial eta ekonomikoa duela kanpainak, tokiko ekonomia garatzen lagunduz, Erronkarin zein Zaraitzun. Zenbatesten denez, kanpainak irauten dituen hilabeteetan 125 lanpostu sortzen dira Erronkarin eta beste 35 Zaraitzun.